

**AKTA, ARRETA SOZIOSANITARIOKO EUSKAL KONTSEILUAREN 2018KO  
UZTAILAREN 5EKO BILERARENA**

**EGUNA:** 2018ko uztailaren 5a  
**LEKUA:** EUSKO JAURLARITZA, LAKUA II (4. aretoa)  
**HASIERA-ORDUA:** 12:00ak  
**AMAIERA-ORDUA:** 13:30

**PARTE-HARTZAILEAK:**

**LEHENDAKARIA:** Jon Darpón Sierra jauna, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua

**KIDEAK:**Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ordezkariak:

- Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua
- Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako sailburuordea
- Marian Olabarrieta Ibarrondo andrea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako foru diputatua
- Isabel Sánchez Robles andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako foru diputatua
- Maite Peña López andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken foru diputatua
- Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jauna, Bilboko Udaleko Gizarte Ekintzako zinegotzia, EUDELen ordezkari

Euskal Osasun Sistemako ordezkariak:

Iñaki Berraondo Zabalegui jauna, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuordea  
Fátima Ansotegi Elordi andrea, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea

Maria Jesús Gemma Mugica andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia

- Andoni Arcelay Salazar jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Osasun Laguntzako zuzendaria
- Jose Antonio de la Rica Giménez jauna, koordinatzaile soziosanitarioa.

**IDAZKARIA:** María Heras Burzaco anderea, Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzaren aholkulari juridikoa.

Gonbidatu gisa bertaratu direna pertsonak:

-Sergio Murillo Corzo jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendari nagusia eta Kontseiluko ordezko kidea Foru Aldundi bereko ordezkari gisa

-Txaro Rodrigo Montalvo andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendekotasunaren Arretako zuzendari nagusia eta Kontseiluko ordezko Foru Aldundi bereko ordezkari gisa

- Guillermo Viñegra jauna, Osasun Saileko aholkularia

- Emilio Sola Ballojera jauna, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria

- Lourdes Zurbanobeaskoetxea Laraudogoitia andrea Bizkaiko Foru Aldundiko Balorazio eta Orientazio Zerbitzuko burua

## GAI-ZERRENDA

1. Aurreko bilerako akta onartzea (2017/11/27)
2. 11/2016 legea, uztailaren 8koa, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa garatzeko jardun soziosanitarioak. Intimitatea, pribatutasuna eta konfidentzialtasuna baliabide soziosanitarioetan.
3. Foru-aldundiak 2018ko lurralde-plan operatiboak aurkeztea.
4. Historia soziosanitarioa garatzeko plan funtzionalari buruzko txostenaren aurkezpena.
5. Galderak eta eskaerak.

-----

Aipatutako pertsonak bertan direla, bilera hasi da.

### 1. Aurreko bilerako akta onartzea (2017/11/27)

Idatziari ez zaio ez alegaziorik, ez eragozpenik jarri. Onartu egin da.

**2. 11/2016 legea, uztailaren 8koa, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa garatzeko jardun soziosanitarioak. Intimitatea, pribatutasuna eta konfidentzialtasuna baliabide soziosanitarioetan.**

José Antonio de la Ricak hitza hartu, eta azaldu du uztailaren 8ko 11/2016 Legeak (bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa) hau dioela bigarren xedapen gehigarrian: osasun alorrean eskumena duen



sailak, bi urtebeteko epean, azterlan bat egingo du lege honetan ezarritakoaren betetze-mailari buruz. Lege horretako zenbait puntuk zerikusia daukate esparru soziosanitarioarekin. Azpimarratzekoak dira 13. eta 21. artikuluetakoak; hau da, intimitateari, pribatutasunari eta konfidentzialtasunari dagozkionak eta bizitzaren amaierako prozesuan dauden pertsonak banakako geletan egoteari dagozkionak. De la Rica jaunak erantsi du oso egokia litzatekeela alderdi horiek guztiak era esplizituan arautzea egiteko fasean dagoen zaharren egoitzen dekretuan.

Dokumentu bat lantzen ari da bizitzaren amaieran intimitatea eta pribatutasuna gordetzeko gomendioekin. Hori guztia Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari eta foru-aldundiei bidaliko zaie.

### **3. Foru-aldundiek 2018ko lurralde-plan operatiboak aurkeztea.**

Gizarte-zerbitzuen eskumena duten hiru foru aldundietako bakoitzak bere lurralde historikoari dagokion Lurralde Plan Operatibo Soziosanitarioaren (LPOSS) aurkezpena egin du. Azalpen horiek Power Point aurkezpen baten laguntzaz egin dira, errazago jarraitu ahal izateko. Aurkezpen horiek 3. eranskin gisa erantsi dira akta honetan.

Hiru foru-diputatuen aurkezpenen ondoren, Jose Antonio de la Rica jaunak adierazi du oso atsegingarria dela ikustea, LPOSSetan, Kontseilu honek markatutako lehentasunak erabili direla diskurtsoa antolatzeke; izan ere, aurretiko adostasun bat badagoela adierazten du horrek. Erantsi duenez, Planak arretaz irakurri gero, oso aberatsak direla ikusten da, eta iradoki du Kontseiluko kide guztiek eskura eduki behar litzuketela. Azkenik, esan du LPOSSak ez direla irteteko pistola-tiro bat, aitzitik, denbora batez landutako historia jasotzen dutela eta bigarren maila batean gaudela jada. Hau da, planen atzean herritarrak ikus daitezke dagoeneko.

Bestalde, Osasun Sailburu Jon Darpón jaunak uste du foru aldundien lana oso garrantzitsua izan dela plan horien garapenean, eta oso interesgarria iruditzen zaio bilerako parte-hartzaile guztiek plan horiek eskura edukitzea.

### **4. Historia soziosanitarioa garatzeko plan funtzionalari buruzko txostenaren aurkezpena.**

Ondoren, José Antonio De la Rica jaunak zenbait gogoeta egin ditu, Historia Soziosanitarioaren Plan Funtzionalari buruzko txostenarekin lotuta, garrantzitsuak iruditzen zaizkion elementuei buruz. Bileraren aurretik bidali da txosten horren laburpen bat.

Hauk dira elementu horiek: integrazioarako erronka teknologiko garrantzitsua (sistema teknologikoak, datu baseak... Bai zentro-mailan, bai lurralde-mailan) eta adostasun lan bat egin beharra, historia soziosanitarioak zer gutxieneko datu izan behar duen eta datu horiek nondik jaso daitezkeen zehazteko.

Ondoren, Planeko beste puntu batzuetan jarri du arreta: txostenaren bide-orrian (kontzeptualizazioa, proposatutako konponbidea, fase nagusiak eta historia soziosanitarioa sustatzeko bulegoa) eta txostenaren balorazioan (zer balio sortzen du, zer konponbide proposatzen du eta eman beharreko urratsen azterketa). Txostenak

epe motzeko eta epe ertain/luzeko gomendioak jasotzen ditu. Epe motzeko gomendioen artean dago talde soziosanitarioan teknologia-koordinatzaile bat sartzea eta epe ertaineko/luzeko gomendioen artean daude goi-mailako batzorde instituzional bat sortzea, proiektuarekiko atxikitze-proposamen jakin batekin (historia soziosanitarioaren erabilerari eta finantzaketari buruzko hitzarmena), eta baliabide soziosanitarioaren katalogoan araudia sartzea.

Kontseiluko lehendakari Darpón jaunak hartu du hitza eta harridura adierazi du Everis-ek egindako txostenaren arabera Plana abian jartzeak beharko lukeen aurrekontua dela eta. Iruditzen zaio Kontseiluan ordezkariak duten erakunde guztiek proposamenaren erabilerari buruzko azterketa bat egin behar dutela: berek lehenik eta profesionali galdetuta, gero (zerbitzua ematen dutenei), behar duguna hori den jakiteko. Azterketa hori egin ondoren, ateratako ondorioak partekatu beharko dira, behar izanez gero, epeak eta finantzaketa birplanteatzeko, proiektuaren muina eta helburua gogoan izanik. Erakundeei deia egin zaie 2018ko urrian *ad hoc* bilera bat egiteko. Bilera horretan azalduko dira gaiari buruzko balorazioak.

José Antonio De la Rica jauna ados dago gogoeta horrekin, baina gogorarazi du bi epe mota daudela eta erakundek hartu beharreko erabakiak ez dituela zertan eten berehala abia daitezkeen epe motzeko ekintzak.

Bizkaiko Foru Aldundiko Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendari nagusi Sergio Murillo jaunak, berriz, hau adierazi du: Bizkaiko Foru Aldundia kezkatuta ibili dela ikerketa hori dela eta; hots, gogoeta egin dute ea hartan ateratako ondorioak urratsak egiten jarraitzeko abiapuntu izan ote daitezkeen. Bestalde, iruditzen zaio plangintza xeheago bat baliagarria litzatekeela dagokion unean zenbait kontingentziari aurre egiteko. Hau da, kontingentzia guztiei aldi berean ez ekitea eta batasun moduan ez aztertzea, baizik eta fasetan banatzea, kontingentzia bakoitza banan-banan aztertu ahal izateko. Darpón jaunak bat egin du hausnarketa horrekin eta erantsi du adierazita dagoela Lehentasun Estrategiko Soziosanitarioetan eta txostenak adierazitako zenbaterako gomendagarri egiten duela haren erabilgarritasuna oso argi edukitzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken foru diputatu Maite Peña andrea ados dago alde aurreko balorazioak egitearekin, erakundek Planari ekingo dioten edo ez erabakitzeko.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako foru diputatu Marian Olabarrieta andreak, berriz, uste du komenigarria dela txostena erakunde guztiei banatzea, hura aztertzei aukera izan dezaten; adibidez, datorren urrira arte. Ondoren, bilera tekniko bat antolatu daiteke, azterketa horien ondorioak partekatzeko.

## 5. Galderak eta eskaerak.

Olabarrieta andreak arreta goiztiarrarekin zerikusia daukan galdera bat egin du. Zehazki, baterako finantzaketaren gaia zer egoeratan dagoen jakin nahi du; izan ere, hitz egin zen lantalde bati buruz eta finantzez eta aurrekontuez arduratzeko talde tekniko bati buruz eta, are gehiago, izenen bat ere aipatu zen. Gai horretan aurrerapenik izan den galdetu du.



Gizarte Politiketako sailburuorde Lide Amilibia andreak esan dio talde homogeen bat eratzeko azken izenak ekainaren 21ean jaso zirela, eta, orain bai, gaiari heltzeko moduan gaudela, gaiak eskatzen duen profil teknikotik abiatuta. Egia da gaia apur bat lausotu dela, esku-hartzaile asko daudelako, baina asmoa lehenbailehen lanean hastea da.

Egiteko dagoen beste kontu bat kualifikazio profesionalena da. Orain esku artean dugun zirriborroak ez ditu jasotzen hainbat esparrutatik egindako ekarpenak. Dena den, ekarpen horiek dekretuaren izapidetzearen alegazio fasean aurkeztu ahal izango dira. Dekretua 2019ko lehen hiruhilekorako onartuta egotea espero da.

Azkenik, Beatriz Artolazabal andreak, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, bilerako parte-hartzaileei esan die Euskadi hautatua izan dela bere "Euskadi lagunkoia" proiektua azaltzeko; ikertzeko kasutzat jo baita zahartze aktiboaren kudeaketako praktika onen gaiaren barruan. Hori Toronton (Kanada) izango da, datorren abuztuan. Aitortu egin du udalek eta Osasun Sailak Esparru horretan egindako lana, eta udalak animatu ditu, txikiak bereziki, bat egin dezaten proiektua eratzen duen euskal sareko 53 udalerriekin.

Jorrazteko beste gairik ez dagoenez, saioa amaitutzat jo da 13:30ean.

IDAZKARIA

María Heras Burzaco andrea

LEHENDAKARIA

Jon Darpón Sierra jauna